



Lehiaren Euskal Agintaritzak zehapen espedientea ireki die meteorologia-radarren mantentze-lanen sektoreko enpresa batzuei

Lehiaren kontrako jokabide posiblea, meteorologia-radarren mantentze-lanen merkatuaren banaketarako ustezko akordioa izango litzateke

18 hilabeteko gehieneko epealdia ireki da orain, instrukziorako eta ebazpenerako

BILBON, 2020ko urtarrilaren 24an / Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) zehapen espedientea ireki die meteorologia-radarren mantentze-lanen sektoreko zenbait enpresari, euskal merkatuan lehiaren kontrako ustezko jokabideak direla eta.

Informazio erreserbatu fasean jasotako informazioan oinarrituta, Lehiaren Euskal Agintaritzak zehapen espedientea ireki du lehiaren kontrako ustezko jokabide posibleak direla eta, meteorologia-radarren mantentze-lanen merkatuaren banaketarako ustezko akordioa, hain zuzen ere.

Eskuetan duen informazioa dela eta, Lehiaren Euskal Agintaritzak uste du Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. artikulua arau-haustea gertatu izanaren arrazoizko susmoak daudela.

Artikulu horrek kolusiozko jokabideak biltzen ditu eta adierazten du debekatuta dagoela lehia askea kaltetzen edo kalte dezakeen edozein akordio, eta, zehazki, merkatuaren banaketari buruzkoak.

Espedientea irekitzeak ez du ikerketaren azken emaitza baldintzatzen. Izan ere, bai irekiera eragiten duten arrazoizko susmoak bai adierazten den kalifikazioa behin behinekoak dira.

18 hilabeteko gehieneko epea irekitzen da, instrukziorako eta ebazpenerako, irekitzearen akordioa hartu den egunetik aurrera.

Lehiaren Euskal Agintaritzak

Lehiaren Euskal Agintaritzak, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailari atxikia, eta egitura- eta funtzio-independentzia du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduerak ekonomikoei dagokienez.



Kartelen ikerketa da Lehiaren Euskal Agintaritzaren jardueraren lehentasunetako bat, kontsumitzaileentzat eta merkatuen funtzionamendu egokian dituen ondorioen larritasun berezia dela eta. Horretarako, besteak beste, “Errukitasun Programa” dago. Programa horren bitartez, kartel bateko kide diren enpresak isuna ordaintzetik salbuetsita geratuko dira edo isunaren kopurua txikitzeko aukera izango dute, hasita dagoen ikerketa bati dagokionez balio erantsi esanguratsua duen informazioa ematen badute.